

Urdiain

Aurkibidea

Udalerria: Urdiain

Sarrera



Urdiain Nafarroako udalerria da, Sakanako eskualdean kokatua, Burunda bailaran zehazki. Iparraldean Ataun (Gipuzkoa) du mugakide, hegoaldean Urbasa mendilerroa, ekialdean Iturmendi eta mendebaldean, berriz, Altsasu.

- **Biztanleak:** 698
- **Euskaldunak:** %74,68

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **8**
- Zintak: **6**
- Pasarteak: **3**
- Transkribatutakoak: **0**

- Audioak: **3**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Euskalkiak.eus
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- SOKA: Euskal Dantzaren Urratsetan
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Juncal Galarza Garmendia (1935)

Urdiainen jaioa 1935ean. Gurasoak ere Urdiaingoak zituen.



Iñigo Goikoetxea (1972)

Iñigo Goikoetxea musikaria Urdiainen jaio zen 1972an. Gozategi musika taldeko partaidea da, taldearen hastapenetik eta baxua eta txarangoa jotzen ditu. 1995ean atera zuten lehenengo diska eta geroztik ez dira gelditu.

Antonio Goikoetxea Mendiluze (1937)

Asun Iriberry Bengoetxea (1939)



Dabid Irigoien (1992)

Dabid Irigoien urdiaindarra, XXXXan jaio zen. Hamazazpi urterekin nekazaritzaren arloko lanbide-heziketako ikasketak egiten hasi zen. Ehizako kontuez, bizikletako entrenamenduez eta herriko festetaz hitz egiten du.

Urdiaingo kantariak

Urdiaingo kantari talde bat.



Maialen Unanua (1997)

Dantzaria. Dantzaren inguruan egin zion elkarrizketa Euskal Kultur Erakundeak 2015ean, *Soka* proiekturako.

Genaro Zubiria Ostiza (1933)

Genaro Urdiainen jaio eta Eibarren eta Zarautzen bizi izandakoa da. Gurasoak ere, Ildefonso eta Engrazi, urdiaindarrak zituen, eta biek baserria zuten ogibide. Genarorekin batera bost anai-arreba ziren, bi arreba eta hiru anai, eta bera zen gazteena. Genaro enpresaria zen eta musika zuen zaletasun, akordeoia jotzea hain zuzen. Ramoni Bengoetxea urdiaindarrarekin ezkondu zen eta bi seme alaba izan zituzten.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Urdiaingo San Juanen kantaita (UDI-003/001)

Urdiaingo San Juanen kantaita

2. Urdiaingo sanjuanetako ohiturak (UDI-004/001)

Urdiaingo sanjuanetako ohiturak.

3. Urteberriko errituaren aipamena (UDI-004/002)

Urteberriko errituaren inguruko azalpenak. Urte zahar egunean, gaueko 12etan hasten da erritua. Tarta eta ura nola banatzen diren. Ondoren, kanta bat ere kantatzen da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com